

Ariketa hauek Ikasbileko 1981530 atazan aurkituko dituzu

1- Entzun aurretik

1.1 Lagun berezia



Jon eta Jone, test baten aitzakian, lagun "bereziak" arituko dira irrati-nobelako atal honetan. Zein lagun-motari buruz hitz egingo dute zure ustez?



Jonek airean utziko duen galdera bati erantzutea eskatuko dizugu orain. Ikasgelako saioan, gainerako ikaskideek erantzun dutenarekin alderatzeko aukera izango duzu. Bertan ezagutuko duzu, gainera, test osoaren nondik-norakoak.




Aukeratu bat edo gehitu zeure erantzuna

Zure lagun bereziari deitzen diozunean...

- Eguneroko gauzak kontatzen dizkiozu?
- Pare bat minutuz hitz egiten duzu?
- "Mimoak" nahi dituzulako soilik deitzen diozu?
- Besterik?: _____

1.2 Ezaugarriak eta galdera



Irrati-nobela entzun baino lehen, partekatu ikaskidearekin  ariketan erantzundakoa. Jaso, batetik, lagun bereziak bakoitzak daukan ideia, eta bestetik, galderari erantzundakoa. Ados al zaudete?

1.3 Jonen erantzuna



Jonek lagun bereziari buruzko galdetegia egingo dio Joni. Entzun lehen zatia (00:00-00:48). Zer erantzun du Jonek? Zurearekin bat dator?

Orain, ikaskidearekin batera, aurreikusi zein izango diren galdetegian zehar Jonek Joni egingo dizkion hurrengo 3 galderak. Ondoren, entzun elkarrizketa osoa eta alderatu elkarrizketako galderak zuek proposatutakoekin. Asmatu al duzue?

Aurreikusi hurrengo 3 galderak:

- _____
- _____
- _____

Audioan entzundako galderak hauek dira:

- _____
- _____
- _____

2- Entzun bitartean

2.1 Testaren erantzunak

Zer erantzun du Jonek *Cosmopolitan* aldizkariko galdetegiko hurrengo hiru galderetan? Aukeratu egokia eta alderatu zure ikaskideak erantzun duenarekin.

COSMOPOLITAN

1. Zure lagun berezi hori ikusten duzunean:

- a. Bere gainera salto egiten duzu
- b. Zure desira kontrolatzen duzu
- c. Gau osoa berarekin hitz egin zenezake oheratzeko gogorik sentitu gabe

2. Maitasuna egin ostean:

- a. Gehiago nahi duzu?
- b. Lo geratzen zara?
- c. Alde egiteko eskatzen diozu?

3. Lagun bereziak beste pertsona bat gustatzen zaiola esaten dizu:

- a. Ez zaizu inporta, harekin oheratzen jarraitzeko aukera duzun bitartean
- b. Bihotza apurtzen dizu
- c. Ez duzu berriro ikusi nahi

2.2 Testaren emaitza

Jonek erantzun duena kontuan hartuta, zein izan da galdetegiaren emaitza? Partekatu ikaskidearekin. Gauza bera ulertu duzue?

Hauxe izan da emaitza:

2.3 Testari buruz

Erantzun azken bi galdera hauei eta partekatu erantzuna ikaskidearekin.

Zein iritzi dauka Jonek horrelako testei buruz?

- Txorakeria dira baina tarteka egiten ditu
- Batek baino gehiagok bezala, berak ere serio hartzen ditu
- Debekatuta egon beharko lukete

Eta neskak, zertarako erabili du testaren aitzakia?

- Cosmopolitan aldizkaria irakurtzeko
- Jonek bien arteko harremanari buruz zer pentsatzen duen ezagutzeko
- Cosmopolitan aldizkariaren frogara egiteko

[Eta zuk zer pentsatzen duzu horrelako testei buruz? Komentatu ikaskidearekin. Ados zaudete?](#)

3. ENTZUN ONDOREN

3.1. Zeu kazetari

Demagun Cosmopolitan aldizkariako kazetariak zaretela eta testa osatu behar duzuela hainbat pertsonaia ezaguni egiteko . Dagoeneko 4 galdera dituzue (elkarrizketan entzundakoak). Zer gehiago galdetuko zenukete?

1. Zure ikaskidearekin batera, asmatu galdera bat gehiago eta eman 3 erantzunak aukeran.
2. Ondoren, beste ikaskideekin partekatu, adostu eta osatu denen artean 8 galderako testa.

3.2 Emaizten berri eman

Segidan lau pertsonaien irudiak dituzu. Elkartu zure ikaskidearekin eta aukeratu irudi bana. Zein pertsonaia izan nahi duzu? Nahi izanez gero, aukeratu zure gustuko beste pertsonaiaren bat. Adi egon gainerako ikaskideek ez entzuteko zein pertsonaia aukeratu dituzuen.



Orain, galdetegia egin behar diozue elkarri. Horretarako, erabili elkarrizketako lau galderak eta gehitu asmatu dituzuen beste laurak.

1. Zure lagun bereziari deitzen diozunean:

- a. Eguneroko gauzak kontatzen dizkiozu?
- b. Pare bat minutuz hitz egiten duzu?
- c. "Mimoak" nahi dituzulako soilik deitzen diozu?

2. Zure lagun berezi hori ikusten duzunean:

- a. Bere gainera salto egiten duzu
- b. Zure desira kontrolatzen duzu
- c. Gau osoa berarekin zenezake oheratzeko gogorik sentitu gabe

3. Maitasuna egin ostean:



- a. Gehiago nahi duzu?
- b. Lo geratzen zara?
- c. Alde egiteko eskatzen diozu?

4. Lagun bereziak beste pertsona bat gustatzen zaiola esaten dizu:

- a. Ez zaizu inporta, harekin oheratzen jarraitzeko aukera duzun bitartean
- b. Bihotza apurtzen dizu
- c. Ez duzu berriro ikusi nahi

5. _____ :

- a. _____
- b. _____
- c. _____

6. _____ :

- a. _____
- b. _____
- c. _____

7. _____ :

- a. _____
- b. _____
- c. _____

8. _____ :

- a. _____
- b. _____
- c. _____

Azkenik, atera ondorioak egin berri duzun galdetegitik eta azaldu taldean. Eman behar beste xehetasun aurkezten ari zaren pertsonaiaren inguruan, ahalik eta pertsonalitate osatuena eskaintzeko. Kontuan izan gainerako ikaskideek zure azalpenean oinarrituta asmatu behar dutela zein pertsonaiari buruz ari zaren.

Adibideak lagungarria izan daitezke zure azalpena sortzeko garaian:

- *Ez duzu zure lagun berezia lagun soil gisa nahi...*
- *Sexua baino gehiago bilatzen duzu harreman horretan...*
- *Asko ezagutu ez arren, ukaezina da bion arteko konfiantza nahiko handia dela...*
- *Egunerokotasunetik ateratzeko irrikaz zaude, hori dela eta...*
- *Oso pertsona tradizionala eta ikuspegi kontserbadorea duzu. Erljioak ezarritako baloreak zorrozki jarraitzen dituzu, eta ez duzu bestelako joerarik onartzen.*
- *Noizean behin araua hausten baduzu ere, ausardia handiagoa falta zaizu.*
- *Lagun berezia baino gehiago izatea bilatzen saiatzen zara, baina ahalegin horretan ez duzu harreman egonkor baten ziurtasuna utzi nahi.*
- *Ez duzu harreman iraunkorretan sinisten. Zure ustez, leialtasuna aspergarria da, eta denbora luzeko harremana duten bikoteek ez dakite bizitza behar bezala gozatzen.*
-